

# Herri Aldizkaria

# otomota



□ **Hits & Fits** bandak apirilaren 12an eman zion hasiera 96. urterako prestatu duen “**Premiazko hitzak garai honetarako**” izeneko hitzaldi zikloari. Apirilean, Tere Irastortza, idazlea, Jose Antonio Vitoria, zine zuzendari eta gidoilaria eta Felipe Juaristi idazle eta poeta, literatura eta zinema gaiez aritu dira solasean. Herriko zenbait musikariek hitzaldietako etenaldietan musika jo izan du hitzaldiari aire berria emanez. Idazle ezagun ugari izango dira hizlari Urretxu eta Zumarragan datozen hileetan.

□ **JOSEBA JAKA**, euskalgintza munduan lan handia egin zuena, hilaren 16an hil zen Cadizen, itsasoan istripua izan eta astebetetz koman izan ondoren. **Joseba Jaka** jaiotzez zegamarra bazen ere, 14 urterekin Zumarragara etorri eta bertan bizi izan zen luzaroan. Euskal liburugintzan buru belarri ibilitakoa, ELKAR argitaletxea, ZABALTZEN banaketa sarea eta BILINTX liburu-dendaren sortzailea zen.

□ **Iker Zabaleta** afizionatu mailako txirrindulari zumarragarra, oso denboraldi ona egiten ari da. Guztira 7 lasterketan hartu du parte eta gurpila zulatu zuen batean ezik, gainontzekoetan 6 lehenengoen artean helmugaratu da BAQUE taldeko zumarragarra. Gainera, izen handiko bi lasterketan lehen eta bigarren postuak lortu ditu zumarragararak.



□ **JOSEBA APAOLAZA** aktore urretxuarra Euskal Telebistako **Jaun eta jabe** izeneko telesaila berrian ikusteko aukera dugu astearte gauero. **Jaun eta Jabek** lehendakari izendatu duten sukaldariaren ibilerak kontatzen ditu. Jose Ramon Soroz da lehendakaria eta **Joseba Apaolazak** honen etxeko sukaldari laguntzaile lanak egiten ditu teleailean.

QUEMAIZATEAK

ZINTZO  
MINTZO  
ELIARTEA

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo  
besterik behar baduzu zatoz hona



ARTYRO

Ipeñarrieta, 4 © 72 14 20 URRETXU

Art

Agutzare dekorazioa  
LABEAGA 52-720494

EDURNE

Punta puntako moda  
Aukerarik hoberena  
gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA



# IRRINTZI: GURE HERRIAREN IRRINTZIAREN OIHARTZUNA

*Hilaren 27an egingo duten aktuazioaren bidez bere lana herriari erakutsi nahi diote*



IRRINTZIK ibilbide luzea izan du eta honen lekuko dugu 30. urteurrena oso hurbil izatea. Dena den, urteurrenaz aritzeko parada izango dugu bere garaian. IRRINTZIREN hasiera 1967. urtean koka dezakegu. Garai hartan, La Salle ikastetxeko Santiago anaia irakasle gisa hasi zen Tomas Sadabarekin batera, dantza talde bat sortzeko grina piztu zuten zenbait gazterengan. Harrez geroztik, gauza asko pasatu dira baina nekeak neke egun ere IRRINTZI taldeak lanean dirau.

## Nortzuk osatzen duzue Irrintzi dantza taldea?

Egun, taldea bitan banatzen da, handien taldea eta txikien taldea hain zuzen ere. Lehenengoan 25 bat lagun gara eta txikien taldean, berriz, 80 bat.

## Zertan datza Irrintziren antolamendua?

Erabakiak asanblada bidez hartzen ditugu, partaide guztiek botua dutelarik. Horrez gain, lau pertsonaz osaturiko batzorde bat ere badugu, hau urtez urte aldatzen da. Batzordeak zenbaitetan ideiak luzatzen ditu baina azken erabakia asanbladarena izaten da. Honek jendearen inplikazioa areagotzen badu ere, erabakiak hartzea zaildu egiten du.

## Zein da zuen helburu nagusia?

Euskal dantzak herri mailan mantentzea eta bultzatzea eta batez ere herriarentzat lan egitea.

## Etorkizunerako ekintzak...

Hilaren 27rako dantzaldi bat antolatu dugu. Honen helburua batik bat gure lana eta dantzaldi honetan parte hartuko duten beste zenbait talderen lana (trikitilari, txalapartari, bertsolari, dultzainajole...) herriari erakustea litzateke. Onartu behar da, aktuazio gutxi izaten ditugula. Dagoeneko folkloreaken boom-a pasa da eta gainera euskal dantza talde anitz dago. Guk egindakoa euskal dantzarentzat ez da erabakiorra baina bai herriarentzat.

Ekintzekin jarrituz gure eginbehar

garrantzitsuenak jaien eta Dantzari Txikiren antolamendua izaten da.

## Zer nolako harremanak dituzue gainontzeko dantza taldeekin?

Inguruko herrietako taldeekin primerakoa (Legazpi, Zegama...). Normalean kanpoko taldeetako dantzak ikasi nahi ditugunean bertako partaideekin harremanetan jartzen gara eta hauek ondo erakusten saiatzen dira.

## Aurretiko jarrera handia behar al da dantza talde batean aritzeko?

Disziplina minimo bat eta bakoitzaren aldeko erantzunkizuna ezinbestekoa da, baita gure artean giro ona sortzea ere. Dantzan aritzeak jende eta lagun berriak ezagutzeko aukera ematen du eta juergak ere ez dira falta!

**MAPFRE**  
Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00  
20700 - ZUMARRAGA

**ZAPATAK**

Otik 40 zenbakiraino

Eliz Kale, 7 • © 72 54 39 20700 ZUMARRAGA

**LIBURUDENDA**

**GANBARA**

Labeaga, 52 Tel. eta Faxes: 72 50 45  
20700 URRETUXU

**ANSA**

Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA © 72 04 23

**Mutua General de Seguros**

Iparragirre, 11-etxeazpia  
20700 URRETUXU © 72 25 99

**ITURGINTZA**

**LUIS ANGEL**

Gure erakusketan zain gauzkazu!

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxes: 72 54 59



## ANTZERKIAK ZALETU UGARI IZAN DU BETIDANIK


Gure antzerki zaletasuna ez da gaur goizeko kontua. Egun, antzerki tailerlean gazte ugari lanean aritzea eta aurten Urretxu eta Zumarragako X. antzerki astea ospatzeko moduan izatea, ez da, beharbada, kasualitatea.

62-63. urte inguruan, antzerkirako zaletasun handia zuen **Felixiano Arrieta** zenaren gidaritzapean, gazte talde bat bildu eta antzerkia egiten hasi zen. Pasiotarren komentuko antzokian, bertan entsaiatu eta antzezten zituzten lanak. Helburua euskara bultzatzea zen.

Orduan euskara arazo politikoa-ekin lotzen zenez, pasiotarren komentuan goardia zibilen bisita ere izan zuten, bertan gazte talderik biltzen zen egiaztatzeko. Gezur txikiak pekatu ez direla ulertuz, praileak goardia zibilei bertan, gazterik biltzen ez zela erantzun behar izan zion, jakina.

Antzeztutako lan guztiak gogoratzea zaila bada ere, "Ehun dukat", lehen antzezlana izan zena, "Osaba" edota "Txerrenzubiko gertakaria" lanak, ondo ikasi ondoren taularatutakoak izan ziren.

Felixiano Arrieta arduratzen zen zuzendari lanez, berak eskuratzen zituen antzezlana eta berak banatzen zituen antzeztu beharreko paperak. Papera buruz behar bezala ikastea zen lanik zailena eta neketsuena.



Pasiotarren komentuan entsaiatu eta antzezten ziren lanak


Batzuetan, gainera, jendaurrean esan beharrekoaz ahaztu egiten zen aktorea eta orduan eskertzekoa izaten omen zen Gregorio Arrieta apuntadorearen lana. Inoiz, aktoreak esan beharrekoa ahaztu eta Gregorio, eskena luze osoa irakurri beharrean ere egon zen.

Gabiria, Antzuola, etabarretik... etortzen baitzen jendea antzerkira. Kanpotarrek, herritarrek baino zaletasun handiagoa zuten.

Herritik kanpo ere aritu ziren lanean, Beasain, Aginaga, Urnieta, Azpeitia edo Abadiñon esaterako. Behin Abadiñoraino joan eta emankizuna hastear zegoela, goardia zibilaren debekuagatik bertan behera utzi behar izan zuten funtzioa. Emanaldirik eskaini gabe bueltatu behar izan zuten etxera, baina bidaia ederki aprobetxatu zuten, bapo meriendatu ondoren, tripa beteta itzuli baitziren.

✓ Inguruko herritarren artean ezaguna zen herriko antzerki taldea

Hala ere, gehienetan bakoitzak bere lana ondo ikasia izango zuela pentsa daiteke, inguruko herrietatik, Legazpi,



**Lanbasa**

- estetika
- dietetika

Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA

**Kahunas**

O'NEILL-ASTORE-LIBERTO-H.W.-LIBERO

Udaberriko eta udako modarik onena

Nekolalde, 5  
20700 Urretxu Tlfnoa: 72 56 89

**POLITENA**

**TABERNA**

Kalebarren 20700 ZUMARRAGA



Argazki Estudioa  
Argazki eta bidegintza

Ipeñarrieta, 20 © 72 23 19 URRETXU  
Aizkorri, 1 © 73 06 84 LEGAZPI

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

**HEGI ALDE AUTO**

ZERBITZU OFIZIALA

- KONPONKETAK OROKORREAN
- IBLGAILU SALMENTA
- GARBIKETA ZUBIA



PEUGEOT

Mugitegi, 17 © 72 51 37 - URRETXU



**BAPRI**

Animalidenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13



## Zer iritzi duzu Legazpi eta Soraluze kaleetan aparkatzeko jarri den arau berriaz?



Xabier Cibrian

Oso ondo dago guztiontzat. Bai edozein arrazoiengatik kale honetara etorri behar duenarentzat eta baita karga-deskarga lanetan aritzen direnentzat ere.



Olga Renedo

Ez daukat kotxerik, eta beraz niretzat ez da ez mesederako ezta kalterako izan. Alde batetik gaizki dagoela uste dut, denbora luzaroan aparkatzerik ez dagoelako, baina aldi berean, ondo dago, negu partean batez ere, kotxe asko luzaroan toki berean aparkaturik egoten delako.



Inma Albusua

Bertakooi makina bat buruhauste sortzen digu, ordutegiagatik. Hala ere, gainontzeko herritarrentzat mesedegarria izan daiteke, lehen ez bezala, orain aparkatzeko tokia egoten delako.



Elena Barandiaran

Nahiz eta kale honetan lan egiten dudana ez dut bertan kotxea aparkatzeko ohiturarik izan eta alde horretatik ez dut aldaketarik antzeman. Kalea lehen baino tristeago dago. Ez dut uste neurri honek ez aurrera eta ez atzera egingo duenik.

Zumarragako Aranburu Etxeberrikoa, institutuko katedraduna da eta 27 urte daramatza irakasle lanetan. Egun, Deban bizi da eta Mutrikuako institutuan ari da eskolak ematen.



17 urtez *Herri Literatura* batzordean lanean aritu ondoren, martxoaren 29an Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen. Maiatzaren 31an jasoko du Hizkuntz Akademiaren partaidetasunaren ezaggarri diploma eta bere egin beharra Euskaltzaindiaren helburuak betetzen laguntzea izango da.

Beti izan ditu gogoko bertsolaritza eta literatura, eta honen adibiderik nabarmenena olerkia, bertso idatzia edota narratibako Euskal Herriko lehiaketa ezagunetan lortu dituen sari ugariak dira. Tene Mujika, Balentin Enbeita, Basarri saria eta antzekoetan parte hartu du eta guztira 18 sari eskuratu ditu.

Dagoeneko gainera, hiru liburu idatzi eta argitaratu ditu, *Zalantzaren aztarnak* olerki liburua, *Hasperen ttantta bihoztiak*, bertso liburua eta berak oso ederki ezagutzen dituen bertsolari txapelketetako gorabeherak kontatzen dituen *Bertsolarien desafio, gudu eta txapelketak* izenekoa.

13 urtez bertsolari txapelketa egin gabe egon ondoren, 1980. urtean berriro ere ospatzen hasi zen. Jesus Mari orduko bertsolari txapelketako antolatzaile lanetan aritu zenetariko bat izan zen. Honetaz gain, Euskal Herriko hiru Txapelketa nagusitan eta gazte mailako askotan izan da epaimahaikide.

**JESUS MARI ETXEZARRETA**

**KORTABERRIA**

**TABERNA**

**Pintxoak, Bokatak, Afariak**

Kalebarren 26an gaude

ZUMARRAGA Tfnoa: **72 04 67**



Labeaga, 35 Tfnoa: 71 41 60 20700 - URRETXU

**BIONA**

**AROSZTEGIA**

© eta Faxes: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU



# LARRUAZALA EZBERDINA, ETA ZER?

## Gure herrian bada arrazakeria kasurik

Oraingoan herrian gertatu da arrazakeria kasu bat. Izan ere, Urretxun bizi zen ijito familia bakarrak, herritik alde egiteko jasotako mehatxuez beldurtuta, bere bizitokia utzi eta Urretxutik alde egin behar izan du. Santa Barbara auzoa eta Mundo Mejor bitartean dagoen "Etxetxo" izeneko etxean, bizi ziren udaz geroztik, mehatxatutako senar-emaztea bere 7 seme-alabekin. Zaharkituta zegoen etxea txukuntzeko, uda garaian pintaketa eta konpontze lanetan ilusio eta gogo handiz aritzea alferrikakoa izan zaie. Etxe honetan urtebete egin aurretik, erabat izututa, dena bertan behera utzi eta alde egin behar izan baitute.

Duela hilabete larunbata gauez, gazte bat etxera joan zitzairen eta Urretxun ijitorik eta beltzik ez zutela nahi argitu ondoren, bizilekua uzteko mehatxua jaso zuten. Hau ez da izan, hala ere, familiak jasotako lehenengo mehatxua, inoiz "ijitoak kanpora" zioen pintadarik ere irakurri ahal izan delako hauen etxean.



Orain arte inorekin arazorik izan ez duen familia da, herrira ongi egokitu dena, baina badirudi orain, larruazala ezberdina izátea arazoa dela gure herrian.

Kalean, herritarren ahotan dabilen zurrumurrua da gertatutakoa eta kaltetua izan den familiako kideak erabat izuturik daudenez, ez du informaziorik eman nahi izan.

Guk, gertatukoaren berri emanez, informazioa eskaini eta honelako ekintzak salatu nahi izan ditugu lerro hauen bitartez. Onartu beharrean gaude gainera, askotan horretarako arrazoirik izan gabe ijitoak baztertzen ditugula, eta hau kritikagarria bada, orain gertatu dena, erabat ulertezina eta salatu beharrekoa da.

Herri Aldizkaria  
**Otamotz**

**Etxean dohain jaso nahi baduzu  
edota  
Iragarkiren bat egin nahi baduzu  
Deitu 72 57 75 telefono zenbakira**

**ZUMALORE**  
LORATEGIA



Begoña Sagastizabal

© 72 51 90 - 72 06 76

Iparagirre hiribidea, 5 ZUMARRAGA

**MASTER** - Hezkor  
CALIFORNIA

Zumarragako elektrogailu  
erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera  
benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31  
20700 ZUMARRAGA



**Belardenda, dieta eta errejimen  
elikadura**

Labeaga, 31  
URRETXU

Tfnoa: 72 27 80

**tzuri beltz**

**Egin ezazu zure arropa**

3.500 pezeta hileko

Labeaga 35  
URRETXU

Tfnoa: 72 44 64



Langileriaren Eguna



“Lora-hil ederra hasten dun;/ eguna dun urrin eta kolore;/ ehun soziala agintzeko boza dun”. Horrela zioen Gabriel Arestik bere Euskal Harria liburuan, 1967. urtean. Maiatzaren Lehenengoan, Langileriaren Egunean, bai egun hauetan edo historian zehar, beti izan da langileriaren boza, ahotsa, agintari. Eta ELA sindikatuko kideok hala sinisten dugulako, aurtan berriro elkartuko gara Iruñan gaurko gizartean ematen den enplegu ezegonkortasunak sortzen dituen marginazio egoerak salatzerako, aldi berean gure jaia pozez eta indarrez ospatuz.



Betidanik ELA sindikatuak Maiatzaren Lehena hartu du euskal langileriaren arazoak kaleratzeko. Horrela gazteriaren arazoa gaur dugu salatu behar, gaurko lan egoerak emigraziora zigortzen baitu, gure gazteria beste arazoaren artean zabor kontratuak hor bait darraite, ezegonkortasuna gainera geroz eta larriagoa bihurtzen ari da. Zoritxarrez azken urte hauetan ere, ohitura bihurtzen ari zaigun “Lan Harremanetarako Euskal Esparrua” eskatu beharrean gaude berriro, Heziketa Iraunkorrerako Euskal Akordioarekin gertatu zaiguna berriro gerta ez dadin. Ez ditugu lapurretara gehiago jasan nahi euskaldunon diruetan.

Horrela egoera honetan LAB erakundearekin goaz, ELA eta LABen arteko lankidetzak, posible egiten ari baita euskal sindikalismoak irabazi izan duen nagusigo soziala ekintza emankor batetan isladatzea, ekintza horrek lan harremanetarako euskal esparruaren erreibindikazioa itxuratzen laguntzen duelarik. Hala ere ELA eta LAB-en arteko lankidetzaren garapena eta helmuga erakunde sindikal bakoitzak erabateko autonomia sindilaketik abiatuta harremana baldintzatzen edo oztopatzen duen errealitatea eta ekintzak aztertzeke duen gaitasunaren araberakoa izango dela diogu, batzuen eta besteen borondate ona baino harago. ELA ziur baitago lan munduaren gehiengoak eskatzen duenarekin bat datorrela Euskal Herriarentzako bortizkeria guztien jarduna amaitzeko eskatzen duenean.

Gainera Maiatzaren Lehenean ELA-k euskal gizarteari eskatu nahi dio nazio eraikuntzarekiko konpromezu indibidual eta kolektiboa berritu dezala, konpromezu horretan euskal sindikalgintzarako lehentasuna langileek jasaten dituzten arazoei aurre egitea izango delarik. Lan munduarentzat Euskadi eredu erakargarri eta integratzailea, gizarte justizia eta kohesioaren aldeko borrokan gune hurbilagoa, parte hartzeko egokiagoa eta eraginkorragoa den heinean izango dela uste baitugu.

Iragarki hau Sevillan edo Toledon balego iragarki zuzena dela esango genuke. Iragarki hau Zumarragan dago ordea eta guk dakigunez Zumarraga Euskal Herrian dago, beraz euskararen herrian edo ez?

NONDIK DATOR!

AZURMENDI

Bi osagaiez osatutako abizena da, Azur eta mendi alegia. Lehenengoak, "Azur" ek, hezurra adierazten du. Asurmendi, Azurza edota Asurdui erro bereko abizenak dira. Bigarren osagaiari dagokionez, Mendi hitza duten abizen asko ezagutzen dira Euskal Herrian eta baita Urretxun eta Zumarragan ere. Mendizabal, Mendaraz, Illarramendi edota Otamendi, besteak beste.

Zumarraga-Urretxuko ELAren Hiri Batzarra

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



GOIERRI K.E.-ko ARETO FUTBOL TALDEAK BIDE ONEAN AURRERA

Futbol talde bat osatzeko zeuden zailtasunak ikusirik, Goierri K.E-koak areto futboleko saiatzea pentsatu zuten. Honela 1989an taldea osatzeko deialdia egin eta jokatzeko hasi ziren. Orduetik hona herrian zaletasuna bultzatu, talde berriak atera eta bere maila etengabe hobetu dute.

**Zenbat taldek osatzen duzue Goierri K.E-ko areto futbol saila?**

Senior mailan mutilen hiru talde eta neskena ditugu. Bestalde eskolarteko ligan hiru talde ditugu: Jubenil mailan bat eta kadete mailan neska zein mutil talde bana.

**Ze mailatan dago egun talde nagusia?**

Senior taldea maila ezberdinetan ibili da. Gipuzkoako 3. mailan hasi eta estatu mailako Federazioaren Ohorezko mailara heldu zen. Ondoren Federazioa eta Liga bateratu eta nazional mailako 1go 'A' taldean kokatu gintuzten. Hiru urtetan zehar maila horretan jokatu eta aurten lehen maila autonomikoan gaude izan ditugun ekonomi arazoak direla eta. Liga Nazionallean jokatzeko aurrekontu handia behar da eta guk ez dugu hainbeste diru. Herrian oso maila altua dago eta brasildar pare bat taldean izango bagenu edonorekin lehiatzeko ahalmena izango genuke. Kontutan izan behar da gainera jubenil taldeko hiru jokalarik Andorran jokatu den txapelketa batean arituko direla Euskadiko selekzioarekin.

**Urretxu-Zumarragako jendea soilik al duzue taldean?**

Guk antolatzen ditugun txapelketetan jokatzeko duen jendea hartzeko ohitura dugu. Bergara, Eibar...



**"Brasildar pare batekin talde onenei aurre egingo genieke"**

inguruko taldeak maiz etortzen dira eta talde horietako jokalariren batek edo bestek gurekin jokatzeko du.

**Igotzeko itzaropenik ba al duzue?**

Bai. Liga Autonomikoan aurreneko postuan gaude eta Maila Nazionalera zein Euskal Ligara jo dezakegu. Aipaturiko aurrekontu arazoak direla eta ez zaigu komeni nazional mailan aritzea, baina bai ordea Euskal Ligan. Jokalariek ere diru arazoak daudela ulertu eta taldean geratu dira nahiz eta dirurik ez jaso.

**Jende asko joaten al da zuek ikustera?**

Hasi ginenean, beti gertatu ohi den bezala, jende asko etortzen zen partiduak ikustera. Gero pixka bat jaitsi da, baina zalego ona dugula uste dugu.

**Esperientzia bereziren bat izan al duzue?**

Beno, Irene Villa zauritu zuen atentatuaren ondoren, Madrilera jokatu behar izan genuen, bertako zaletuek sekulakoak esan zizkiguten eta larri ibili ginen autobusez bertatik ateratzeko

orduan. Hala ere, esperientzia gehienak oso onak izan dira, lagun asko egin ditugu eta baita paraje ederrak ezagutu ere: Errusia, Pontevedra, Tenerife...

**Nola izan zenuten Errusiara joateko aukera?**

Errusiarrek Federazio espainiarrari bidalitako fax batean bertara joateko talde bat eskatzen zuten eta azkenean gu joan ginen. Hamar egun zoragarri pasa genituen eta Errusiarrek oso ondo portatu ziren gurekin. Bertako Errepubliketako, Australiako... selekzioen aurka jokatu genuen eta finalerdietan iruzur egin ez baligute, txapelketa irabaziko genukeen.

**Zer asmo duzue orain?**

Lanean jarraitu eta ea aspalditik eskuartean darabilgun proiektu bat aurrera ateratzeko aukerarik dugun. Alegia, koadrilen arteko txapelketa luze bat antolatzea gustatuko litzaiguke. Dena den, instalazioak egoera txarrean daude eta bakoitzak berea jarri nahi ez duenez, urteak aurrera doaz eta oraindik ez dugu antolatzerik izan.

**ELIZ - KALE**

**AUTOESKOLA**

Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**  
JACINTO PLAZAOLA ALKORTA

Bidezar, 5  
20700 ZUMARRAGA © 72 13 70

**RENEDO argazkiak**

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700  
URRETXU © 72 56 82  
72 22 92



## LURRA DANTZA TALDEA

Urretxuko **Lurra** dantza taldeak **San Juan sua** dantzei buruzko ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 7an hasiko da eta asteartero eta ostegunero 7:30etatik 8:30etara emango da Urretxuko **Gainzuri** ikastetxean. Informazio gehiago nahi izanez gero jo Urretxuko Kultur Etxera edo bertako telefonora deitu: **72 41 70**

## ANTZERKIA

Maiatzaren 6tik 12ra bitartean, **JOSU ETXEBERRIA X. ANTZERKI ASTEA** egingo da.

Maiatzaren 9 eta 10ean, **antzerki topaketak** izango dira, **Antzerkia gaur** izenburupean.

## MUSIKA IKASTETXEA

Maiatzaren 27tik 31ra bitartean, Secundino Esnaola Musika ikastetxeko ikasleek, **Legazpi Dorretxeko IV Kontzertu Zikloa** eskainiko dute.

## AURKEZPENAK

Maiatzak 24: Urretxuko mineral eta fosilen museoko **maleta didaktikoaren aurkezpena**, goizeko 10:30etan, udaletxeko areto nagusian.

## HITS & FITS

Maitzan, **Hits & Fits** bandak **Premiazko Hitzak Garai Honetarako** kultur programakuntzarekin jarraituko du.

## ERAKUSKETA

Maiatzaren 17tik 26ra bitartean, **Benjamin Juaristi** azkoitiarraren pinturen erakusketa izango da Aldaketa erakusgelan.

## ZORIONAK



**Miren Arbonies**, bederatzi urte beteko ditu maiatzaren 5ean. **ZORIONAK** zure senide eta lagunentzat partetik eta Jaunartzerako prestatzen hasi.

**Lide eta Mari Paz, Mari Paz eta Lide** ene bihotzeko adiskidek, zuen artean ni hain goxo beti bero bero beti eroso. **Zorionak, zorionak** zuen hartzatxoaren partetik.



**Joanes**, serio serio eta isilik zaude argazkian baina bihurri bihurri, egin ezazu irri. **ZORIONAK** etxeko guztion partetik.

**Agurtzane**, zer usate zenuen ahaztuta geundela ala? Ba ez, **ZORIONAK** koadrilakoentzat partetik. Zure gonbidapenaren zain gaude. Jadanik barau egiten ari gara.



Hori den **Elena**, hori den hire urteak ditun bota behar dinagu irrintzi ederra: Zoou-RiiiiiiOoooooNaaaak! aiaiaiaiiiiiii!! Ondo pasatu neska!

**Ana Renedo** maiatzaren 22an da zure urtebetetze eguna. **Zorionak**, etxeko guztion partetik.

## LIBURU ETA DISKO AZOKA

Maiatzaren 10etik 19ra bitartean, **liburu eta disko azoka** egingo da Areizaga-Kalebarren enparantzan.

## ALDIRI KULTUR ELKARTEA


Maiatzak 14: Aldiri Kultur Elkarteak antolatutako **Itoitz geldituta** izeneko hitzaldia iluntzeko 7:30etan Kultur Etxean. Hizlaria **Patxi Gorraiz** izango da.

## KOTXE ASEGURUA

Zumarragako bulegoan kotxe aseguruua egiten baduzu, zurea izango da linterna halogeno hau

### Lagun-Car aseguruan

- Bonifikazioak kontutan hartzen ditugu
- Kalteen peritazio azkarra
- Prezio ezin hobeak
- Guk bakarrik eskaintzen dugun **bidaietako asistentzia aseguruua**



### SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa Taldekoa

Piedad, 1. Tfnoa: **72 50 22**